



### *Fitxa teknikoa*

*Xomorro poemak eta beste piztia batzuk.* Leire Bilbao / Maite Mutuberria. Pamiela, Iruña, 2016

*Pizti poemak eta beste xomorro batzuk.* Leire Bilbao / Maite Mutuberria. Pamiela, Iruña, 2016

### *Aurkezpena*

Bi liburu, bi bilduma, antzeko gaia eta proposamen berdintsua. Hitz jolasak poema bilakatzen dira bi liburu hauetan, tradizioaren moldeak erabili ditu Bilbaok zenbaitetan, baina luzatu dituen proposamenek berri usaina dakarte; edozein etxean, eskolan edota herrialdean jolaserako gonbitea luzatzen digutelarik.

Xomorroz eta piztiaz betetzen zaizkigun orrialdeetan aurkitzen ditugu haien kontutxoak, barreak eta zurrumuruak... Haien gonbidapenari jarraituz, istoriotxoak, aho-korapiloak, metatzen diren ipuin dibertigarriak, elkarrizketak eta jolasean aritzeko zernahi poema aurkituko ditugu.

Ahokotasunaren oihartzuna aurkitzen dugu bi liburuetan, autoreak tradizioaren ildoari heldu eta konplexurik gabe jorratzen du gaia, animalia txikiak gai literario gisa erabili eta jolaserako gonbitea bueltatzen digu poema bakoitzarekin. Esateko poema bilduma bat osatu du Bilbaok, kontatzeko eta lagunekin partekatzeko umorez eta sentiberatasunez.

Liburu hauek haurren hizkuntza eta kontzeptu garapena hartzen dute kontutan; lehenengoa haur txikiek eta nagusiek oso gustura partekatuko dute, baina bigarrenaz jabetu eta hartaz gozatzeko, neska-mutilek egitura logiko formala garatuta izan beharko dute, 6-7 urtetik gora.

Azkenik, Maite Mutuberriaren ilustrazio lana azpimarratu behar da. Ilustrazioak zehaztasuna eta aberastasuna eransten baitie liburu biei.

### ***Proposamenak***

- Gustuko poema batzuk aukeratu, buruz ikasi eta beste gela batean poema errezitaldi bat antolatu.
- Poema bilduma bat egin. Haur bakoitzak bere gustuko poema bat aukeratuko du eta hura kopiauko du; denen artean, poema bilduma osatu irakurtzeko, beste gela batean azaltzeko...
- Ahokorapiloak irakuketa jolasak bihurtu. Buruz ikasi ondoren hitz bakoitza txartel banatan idatzi, eta trukaketa jolasak burutu, ordenez aldatu, hitzak kendu eta zein falta den asmatu...